



Ula IRURETAGOIENA BUSTURIA
Arkitektoa

Lurraren poetikan

Hiriaz jarduten garenontzat, lurra zerutik irudikatzen den azalera bat da, ikusgai dugunaren zehaztapen bat. Zapalgarria den horretan zentratuz. Fin aritzen gara azalera gainekoak koloreztatzen eta geometria ematen; definizio honekin, gainazalean bizigarritasuna dena planifikatzen da. Lurralde eta hirien formakuntza Euskal Autonomia Erkidegoak ezarritako legediaren barnean egiten dugu, zer eta Lurzoru Legea izenarekin deitzen dena. Ondo esana dago, deskribatu bezala, lurrezko zoruan gertatzen denaz okupatzen baita. Legearen irizpide deskribatzaileetan, lurzorua defentsa egiten da, «funtsezko baliabide naturala» dela diolako, eta eraikuntza eta giza aktibitatek babestu egin behar da, edo eragina mugaratu gutxienez. Ejem, baliabide hitzak aprobetxamendutik gehiago du zaintzatik baino.

Lurzorutik lurra hitzera dagoen salto berdina dago lurralde eta hiriaren eraikuntzatik ekopoetikarako ikuskerara. Vandana Shivaren “lurra gara” lemaaren esanahi-uhina hirigintzara ekartzen badugu, erabiltzen ari garen begirada praktikoa, funtzionala, eraginkorraz ohartuko gara, maskulinitate sutu baten ezaugarriekin. Ekintza estraktibista

hutsetik eragiten dugu, gizakia zentroan jarritz, eta zentrotik kanpokoak gure beharren esanetara gelditzen dira, alborturik eta gure mende. Gainera, guretzat egiten dugun zoruan, asfalto eta hormigoizko azaleran, bizitza posible bakarra gizakiarena da. Kosmobisio honek eraiki du gure lurrarekiko harremana, lurraren berezkotasuna zertan den ahaztera eramane gaituena. Tratu txarrekin ari gara lurra zaintzen: lurraren gorputza gaixotu, kutsatu eta husten dugu gure ongi beharrez. Eta hala ere, lurra eskuzabala izaten jarraitzen du gurekin.

Lur azpiaren zaintza bi modutan egin izan dugu orain arte; berreskurapena abian jartzen dugu lurzorua aktibitate kutsakorra gizakiarentzat kaltegarria denean, edota lurra kutsaturik abandonatu egiten da, “bere kabuz” berroneratu dadin, naturaren ahalmenean fedea jarritz.

Lurraren ekopoetikari buruzko lan-ildo garaikide bat zabaldu da, lurzorua zentzu material berriztatu bat ekartzeko nahia duena. Harreman maitekor bat bilatu nahi da lurra ren eta gizakien artean, bio-azpiegiturarik boteretsuena delako etxeen zimenduen artean ur zikinen kanalizazioa eta tipularen eta begoniaren sustraiekin dagoen hori. Bira-

keta kontzeptuala lurraren bizitza propioa onartzea besterik ez da, lur gain eta azpian bizi diren hainbeste izakien bizitza errespetatzetik hasten da, gizakia sistema ekologikoko zatitxo bat bezala ulertuz. Harrigarria gertatzen da zeinen gutxi dakin lur azpiari buruz, begi bistatik ezkutaturik dagoelako edo. Misterioa da opazitate handiko lur masa horrek duena, eta mikrobiologiako alor zabal bat sortzen ari da dibertsitate oparoaren nolakotasuna deskubritzeko asmoz. Interesgarria da adierazpen sortzaileak behar dituztela lur azpiko kontakizun eta iruditerien eraketarako, eta lurraren kultura honetan begirada zientifikoa eta artistikoa batzen ari dira. Lurra izango ote da mendebaldeko kosmobisio kultura dualista konpostatuko duena! •



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA BUSTURIA